



MAHAI OROKORRA

Urriaren 13an, Eusko Jaurlaritzak, Administrazioaren langileen 2006rako lan baldintzak negoziatzeko Mahai Orokorraren lehendabiziko batzarra konbokatu zuen.

Administrazioaren aldetik, negoziazioa martxan jartzeko abiapuntu gisa, hainbat zehaztasun mahaigaineratu zizkiguten. Honela bada, Administrazioaren ahotan “langileen lan baldintzak onak dira”, “lansariak Mahai Orokorrean zehaztuko dira” eta harrigarria bada ere, “irakasleok ez dute erosteko ahalmenik galdu” bezalako perlak entzuteko aukera izan genuen. Plantiletan “principio de estabilidad” ezarriko dute, nahiz eta hainbat arlotan nolabaiteko gehikuntza izango den (Osalan?)

Laburbilduz, aipamen orokor batzuk egiteaz aparte, eskaintza ekonomikoan zentratu zuten guztia, hori bai, **Estatuko Aurrekontuen Legetik haratago joateko inongo asmorik ez** zutela argituz. Lansarrietan %2ko igoera proposatu zuten, ekaina eta abenduko osagarrietan %20ko igoera eta Itzarrirako %0,5koa, horra hor beraien eskaintza.

LABetik garbi exigitu genien langileen onura eta zerbitzuaren kalitatea bermatuko duen negoziazioa behar dugula, **aspektu ekonomiko hutsak gaingituz**, eta horretarako borondatea behar dela, Administrazioan ikusten ez duguna hain zuzen. Era berean, egutegia zehazteko eta **mahaia edukiz betetzeko beharra** azpimarratu genuen, hori baita kalitatea eta lan baldintza duinak lortzeko bidea.

<http://www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza>

Araban
Bueno Monreal, 10 Behea
01001 Gasteiz
Telf.: 945 259 544
Faxa.: 945 258 039
Irakaskuntzaaraba@
labsindikatua.org

Bizkaian
Rekalde zumarkalea,62
48010 Bilbo
Telf.: 944 706 900
Faxa.: 944 706 909
Irakaskuntzabizkaia@
absindikatua.org

Gipuzkoan
San Bladi 1, behea
20013 Donostia
Telf.: 943 458 562
Faxa.: 943 456 645
Irakaskuntzagipuzkoa@
labsindikatua.org

Nafarroan
M.Zelaieta 75, 2.A
31014 Iruñea
Telf.: 948 382 474
Faxa.: 948 221 276
Irakaskuntzanafarroa@
labsindikatua.org

Iparaldean
13 Marengo Karrika
64100 Baiona
Telf.: 0559595020
Faxa.: 0559595021
baiona@
labsindikatua.org